

Bere Abonu Denboraldiko Gasteizko hurrengo kontzertuan  
EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK  
VICENTE GOICOECHEA ARABARRAREN  
OBRA LITURGIKOEN AUKERAKETA BAT BERRESKURATUKO DU  
HAREN HERIOTZAREN MENDEURRENEAN  
Arabako Foru Aldundiaren babesarekin

Apirilaren 24 astelehenean Gasteizko Principal Antzokian emango duen kontzertuan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Vicente Goicoechea (Aramaio-Ibarra, 1854-Valladolid, 1916) konpositorea ekarriko du gogora. José Ramón Encinar maisuaren zuzendaritzapean, Orkestrak Gasteizko Abesbatza izango du lagun Goicoechearen lanak interpretatzeko. Gasteizko Abesbatza espreski sortua da ekimen honetarako eta arabar abesbatzetako, hots, Araba Abesbatzako, Suessatio Taldeko, Samaniego abesbatzako eta Luis Aramburu Udal Musika Eskolako Abesbatzako hirurogeita hamar kidek osatzen dute; zuzendariak dira Aitor Sáez de Cortázar, Carmen Moina eta Nagore Alangua.

Apirilaren 24an Principal Antzokian (20:00etan) izango den kontzertuak Arabako Foru Aldundiaren babesa du. Kultura Foru Diputatu Igone Martínez de Lunak aukera baliatu du Euskadiko Orkestra **Sinfonikoari bere esker ona adierazteko “Bixente Goikoetxea artista handiari merezitako omenaldia egiteagatik eta baita Gasteiz Abesbatzaren esku hartzeagatik, kutsu erabat arabarra emango baitio horrek kontzertu berezi honi”.** **Kontzerturako sarrerak** agortuta daude. Emanaldi honek irekiko du Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 16/17 Abonu Denboraldiko 7. programa; Gasteizko kontzertuaz gain, berau osatuko dute apirilaren 25ean Iruñean, 26an Bilbon eta 27 eta 28an Donostian izango diren kontzertuek.

José María Abaden eta Felipe Gorritiren klase gutxi batzuk hartu bazituen ere, Vicente Goicoechea arabarrak konposizioaren sekretuak ia bere kabuz ikasi zituen, XVI. mendeko polifonisten eta Joham Sebastian Bach-en partiturak eta XIX. mendearen bukaeran bogan zeuden musika-egileenak ikasiz: Charles Gounod, César Franck edo Richard Wagner. Maisu izan zuen Gorritik abian jarri eta Goicoecheak Valladolideko kapera-maisu eta Gaztelako mintegian musika irakasle posiziotik bultzatu zuen musika erlijiosoaren erreforma Espainian. Apaiz honen musikan aurreko guztien zertxobait aurki dezakegu. *Christus factus est*, *Tantum ergo*, *Beata viscera* eta *Edoctus autem* moteteak Goicoechearen musika ekoizpenaren adibide onak dira, guztia erlijiosoa, zeina oso ezaguna egin zen XX. mendeko lehenengo hamarkadetan. Orkestrak orain Gasteizen interpretatuko ditu obra horiei Sabin Salaberrik egindako moldaketak; horiek iaz interpretatu zituen Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, 2016ko maiatzaren Musikasten, Erreenteriako Euskal Musikaren Astean, orduan ere Gasteizko Abesbatzarekin batera.

Ondoren, Gernikarako opera bat. Goicoechea omendu ostean, Francisco Escuderoren “Gernika” lau aktodun operaren eszenen aukeraketa bat izango da entzungai, bizkaitar herriaren bonbardaketaren 80. urteurrena betetzen den honetan. Bilboko Koral Elkartearen enkarguz sortua, “Gernika” 1987ko apirilaren 25ean estreinatu zen. Fabula honetan, Gernikako herria euskal jatorriko erkidego bateko gaztea bihurtu eta bere askatasunaren alde borrokatzen du Podio maltzurak zuzendutako atzerriko milizia baten menderakuntza saialdien kontra. Bonbardaketaren eszena protagonistaren profezia gisa sartu arren kondairan, opera ez doa gertakizun horren inguruan. Francisco María Escuderoren esanetan, musika-egilearen semea, “drama guztiz gizatiarra pizten eta islatzen duen lana da, konposizioaren sorrera gisa oinarri dramatiko ahul zezakeen inguru politikoarekin loturarik gabea. Gernika operak gure kultur erroak birsortu eta elkarbizitza aktibo zentzua proiektatu nahi ditu». Libretoa Luis Iriandoren argumentuan oinarrituta Escuderok berak idatzi zuen, eta Carmelo Iturriak eta Agustín Zubikaraik



euskaratu zuten. “Gernika” operaren hainbat eszenen interpretazio berri honek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesa du.

José Ramón Encinar orkestra zuzendaria Espainiako musika garaikidearen azken 40 urteetako irudi nabarmenetako bat da, bai musika-egile gisa gaztetan, Koan talde espezializatuaren eta beste hainbaten edo Gerhard eta Guerrero Proiektuen zuzendari gisa, bai musika berriaren sustatzaile lanetan Kanaria Handiko Filarmonikoa, Portugaleko Sinfoniko Nazionala eta, bereziki, Madrilgo Erkidegoko Orkestraren buruan, azkena 2003 eta 2013 bitartean, enkargu eta estreinaldi ugariarekin.

## **EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN KONTZERTUA** **2017ko apirilaren 24 astelehena, Principal Antzokia, Gasteiz. 20:00etan.**

---

### **José Ramón Encinar**

zuzendaria

### **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**

#### **Egitaraua**

### **Vicente Goicoechea (1854-1916)**

(moldaketak: Sabin Salaberri)

Christus factus est [4']

Tantum ergo [6']

Beata viscera [4']

Edoctus autem [5']

#### **Gasteizko Abesbatza**

**Coro Araba, Suessatio Taldea, Coro Samaniego, Luis Aramburu Udal Musika Eskolako**

**Abesbatza** (zuzendariak: Aitor Sáez de Cortázar, Carmen Moina, Nagore Alangua)

### **Francisco Escudero (1912-2002)**

Escenas de “Gernika” [54']

#### **Carmen Solís**

sopranoa (Gernika)

#### **Federico Gallar**

baritonoa (Podio)

#### **Gustavo Peña**

tenorra (Gogor)

#### **Fernando Latorre**

baxua (Aitona)

#### **Miguel Ángel Arias**

baxua (Rey)

#### **Bilboko Korral Elkartea**

(zuzendaria: Enrique Azurza)

